



## **HONDAKINEN BILKETA**

### **Martxoaren 21ean jarriko da martxan Legorretan, Zaldibian eta Itsasondon hondakinen atez ateko bilketa sistema**

**Martxoaren 9an, larunbata, hasi eta martxoaren 20ra arte atez ateko hondakinen gaikako bilketa sistemarekin funtzionatzen hasteko beharreko materiala banatuko da hiru herrietan**

Herritarrekin batera hondakinak ahalik eta egokien kudeatzeko bilketa sistema diseinatu ostean, eta kuboak uzteko tokiak nahiz landa eremurako bilketa guneak prestatu ondoren, martxoaren 21ean hasiko da atez ateko bilketa sistema Legorretan, Zaldibian eta Itsasondon. Hala adierazi du Azeari Andonegi Sasietako Mankomunitateko presidentek gaur Sasietan bertan Legorretako alkate Bakartxo Mendez, Zaldibiako alkate Joxan Etxabe, eta Itsasondoko alkate Axier Garrorekin batera eman duen prentsaurrekoan.

Azeari Andonegi Sasietako presidentek adierazi duenez, bilketa sistema berriarekin posible izango da % 80 baino gehiago birziklatzea, hala gaur egungo tasa 40 puntutan handituz: "Goierrin asko aurreratu dugu azken urteetan eta batez bestean % 39 inguru birziklatzera igaro gara denbora gutxian, baina bide horretan aurrera egiteko urrats berri bat emateko garaia iritsi da. Eta herritarrei esker posible izango da urrats hori irmo bezain gogotsu ematea".

Andonegiren esanetan, ezin da ahaztu atez atekoa dela birziklatzeko orduan arrakastarik handiena ematen digun sistema. Helburua zera da: "Hondakinak sortzen diren unean bertan bereiztea, hala ahalik eta hondakin baliodun gehien eta ahalik eta kalitate onenekoak biltzeko eta zabortegetan pilatzen den errefusa (birziklatu ezin den gaia) ahalik eta txikiena izan dadin. Bilketa pertsonalizatu egoki baten bidez, eredu iraunkorragoa lortu nahi dugu, beti ere, ingurumen irizpideak nahiz irizpide sozial, tekniko eta ekonomikoak lehenetsiz".

### **Material banaketa herriz herri**

Atez ateko hondakinen bilketarekin funtzionatzen hasteko beharreko materiala martxoaren 9tik 20ra bitartean banatuko dute Legorretan, Zaldibian eta Itsasondon. Herriguneko bizilagunei edukiontzia, poltsa konpostagarriak eta hondakinak ondo bereizteko gida banatuko zaiei. Baserri eta landa eremuko bizilagunentzat berriz, bilketa gune komunitarioa erabiltzeko txartel elektronikoak eta gida emango dira. Material hori guztia doan emango du Sasieta Mankomunitateak.



**LEGORRETA:**

BANAKETA EGUNA	ORDUA	TOKIA
Martxoak 9, larunbata	9:00 – 13:00 eta 16:00 – 20:00	Zinema
Martxoak 10, igandea		
Martxoak 11, astelehena	11:00 – 13:00 eta 17:00 – 19:00	
Martxoak 12, asteartea		

**ZALDIBIA:**

BANAKETA EGUNA	ORDUA	TOKIA
Martxoak 14, osteguna	17:30 – 20:30	Herri Antzokia
Martxoak 15, ostirala	10:30 – 13:30 eta 17:30 – 20:30	
Martxoak 16, larunbata	10:00 – 14:00	

**ITSASONDO:**

BANAKETA EGUNA	ORDUA	TOKIA
Martxoak 15, ostirala	9:00 – 13:00 eta 16:00 – 20:00	Udaletxea (ludoteka)
Martxoak 16, larunbata		